

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Paseoa



ARITZ GALARRAGA

A skotan etortzen zait burura, azken hilabeteotan gehiago, Stefan Zweigen esaldi hau: “Harritu egiten naiz, burlaizez, nire jokabide espontaneoaren eredu filosofiko jasoenekin bat etortzen bada”. Niri ere gertatzen zaidalako; tira, jokabide espontaneoaren baino zentzu komuna, segur aski, eta ez agian eredu filosofiko hain jasoekin. Parrimurriz irakurri dut, beraz, artikulua bat –iradokikorra oso, bestalde, Santiago Alba Ricoren hitzak jasotzen dituelako–, zeina paseatzeaz ari baita, aitortuz arte bat dela, espazio publikoan egoteko eskubidea daukan subjektuaren errebindikazio bat, kapitalismoaren kontrako garaipen bat.

Aber, ez gaitezen flipatu: ibiltzea denik eta gauzarik normalena da, orain gutxira arte behintzat –orain, Alba Ricoren esanetan, medikuaren agindu bilakatu da–. Esan nahi dut gizakiaren abiadura, mugimendu, erritmo naturala oinez ibiltzean datzala; giza-gorputza ibiltzeko egin dagoela alegia, eta ez hegazkinez, autoz, trenaz edo bizikletaz –uste dut zaldiz ere ez, ze pena–. Pertsonalki, nahiago izan dut betidanik nonbaitera oinez joan, edo bestela ez joatea, bestelako garraiobiderik tartean bada. Eta oinez ibili bitartean pentsatzea, ingurua begiratzea, tarteka beste oinezkoen batekin txokatzea.

Berritik ez du ezer: pentsamendu korronte oso bat dago paseatzearen bueltan, zeinaren paradigma litzatekeen Walter Benjamin –baina bi aldiz hain jarraian zitutzen badut intelektualtzat hartuko naute, eta ez dut desio–. Robert Walser aipatuko dut, hortaz, haren *Der Spaziergang* lan deliziosa, 1917koa. Nahiko nuke niretzat idaztean agertzen duen arreta, arintasuna, finezia –nola hil zen ere nahiko nuke niretzat, elurretan erori baitzen paseatzen ari zela; ez dakit elurrik geratuko ote den ordurako–. Bien bitartean, egin dezakegun gauzarik onena da paseatzen jarraitzea; nahiz jokabide espontaneoak eredu filosofiko jasoenekin bat etortzeko arriskua hor egongo den beti. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com

DURANGOKO AZOKA 2020



ADUR

“AUZOA(N) BIZITZEKO MODU BAT ARI DIRA EPAITZEN”

TALKA GUNE OKUPATUKO KIDEA

2019ko abenduan kolektibo feministak lokal huts bat okupatu zuen Gasteizko Alde Zaharrean, eta Ertzaintzak 2020ko maiatzeko konfinamendu aldian indarrez hustu. Bost pertsona epaitu dituzte, Talkaren hustearekin lotuta. “Udalak turismorako saltzen du auzoa, bizilagunak kontuan izan gabe. Auzoan bi lokal okupatu izana ez da ausazko erabakia. Espazioei erabilpen komunitarioa emateaz gain, bizilagunon beharrak mahai gainean jarri eta auzoaren gentrifikazioa salatu nahi izan dugu”. **ARGIA.EUS / 2020/11/27**

